



BERGARA

Udal aldizkaria | 07 zenbakia | 2009ko uztaila

ELKARTEEN TXOKOA >08

Bubisher elkartea, Saharako herriaren aldeko txoria

UDAL ARTXIBOAK SINATUA >09

Bolatokiak, aisialdirako toki aski ezagunak

EUSKARA >14

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko programa

TURISMOA >18

Bisita gidatuak Erret Mintegiko indusketetara



GAI NAGUSIA >04

**UR ZERBITZUA
UDALAREN
ESKU**



Zenbaki honetan...

03 EDITORIALA



04 GAI NAGUSIA • Ur zerbitzua Udalaren esku ■


06 HERRITARRAK KAZETARI • GALDERAK ■



07 OPOSIZIOAREN IKUSPUNTUA

08 GURE BERGARA

- 08 ELKARTEEN TXOKOA • Bubisher elkartea ■
- 09 UDAL ARTXIBOAK SINATUA • Bergarako bolatokiak



10 UDALA

- 10 BERGARA ZENBAKITAN / Gehigarria /
- 14 EUSKARA
- 15 KIROLA / GAZTERIA
- 16 KULTURA
- 17 GIZARTEA
- 18 TURISMOA ■
- 19 UDALBATZARRAK



BERGARAKO UDALA

San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin	943 77 70 95	Kanposantua	943 76 27 81
Alkatetza	943 77 91 01	Kirolak	943 77 91 67
Angiozarreko liburutegia	943 76 16 19	Kontuhartzaitetza-Hazienda	943 77 91 64
Artxiboa	943 77 91 32	Kultura	943 77 91 58
Enpresa komitea	943 77 91 73	Labegaraietako kiroldegia	943 76 56 41
Euskaltegia	943 76 44 53	Liburutegia/Kultura Etxea	943 77 91 62
Euskara	943 77 91 66	Mizpirualde egoitza	943 76 13 68
Gizarte Ongizatea	943 77 91 65	Obrak eta Zerbitzuak/Udal biltegia	943 77 91 52
Hirigintza eta ingurumena	943 77 91 68	Ondare artistikoa/museologia	943 77 91 62
Idazkaritza	943 77 91 00	Osintxuko liburutegia	943 76 23 76
Igerilekuak	943 76 20 51	Udaltzaingoa	943 77 91 06
Informatika	943 77 91 37		



Lana eta ilusioa biderkatu

UDAL GOBERNU TALDEA



Udaleko Gobernu taldeko kideok bi urte bete ditugu udala gestionatzen eta dagoeneko agintaldiaren erdia egin dugu. Bi urte horietan lana eta ilusioa izan dira lan taldea osatu dugunon ardatza. Hori islatzea izan da gure ardua, bai eguneroko harremanetan baita hartutako erabakietan ere. Erabaki asko zailak izan dira eta izango dira, baina gure asmoa abertzale eta ezkerreko ikuspegi batetik lan egitea izan da. Horrexegatik, aurretik zetozen dinamika askorekin apurtzeko eta aldatzeko erabakia hartu dugu eta horrek zailtasunak eta lan egiteko moduan aldaketak ekarri dizkigu. Baina gure buruarekin zintzo jokatzeko da gobernu osatzen dugunon helburuetariko bat eta hartutako erabakiak zintzotasunean eta bergararontzat onura ekarriko dutelakoan hartu ditugu.

“

Erabaki asko zailak izan dira eta izango dira, baina gure asmoa abertzale eta ezkerreko ikuspegi batetik lan egitea izan da

”

Aurretik adierazitako ezkerreko ikuspegiarekin jarraituz eta administrazio publikoak eman beharreko zerbitzuak publikoki gestionatzeko helburuarekin, ur zerbitzuaren kudeaketa udalaren gain hartzea erabaki dugu. Horrek lan moduan aldaketa bat ekarriko du, baina ziur gaude erabaki horrekin zerbitzua hobetuko dugula eta gainera udalari ez dio kostu gehigarririk ekarriko. Bergarako Udalak berak eman beharreko zerbitzuen azpikontratazioaren aurka gaude printzipioz eta pentsamoldez. Horrelabada, bakarrik gure esku dauden zerbitzuetan ahalik eta azpikontratazio gutxien egiten ahalegindu gara.

Bestalde, murgilduta gauden krisi egoera honek eragina izan du Bergarako Udalaren aurrekontuetan. Izan ere, Foru Aldunditik jaso beharreko diru kopurua asko murriztu da eta

etorkizunean berdin jarraituko duela ematen du. Aurreko agintalditik etxeko lanak eginda jaso izan bagenu ez genuke asko igarriko. Aitzitik, egoera bestelakoa da. Bergarako Udalak ez dauka nahikoa diru behar dituen azpiegiturak gauzatzeko, hankamotz dagoela nabaritzen dugu. Hirugarren adinekoen egoitza zaharkitua, liburutegia zaharkitua, kultura eraikin egoirik gabe.... eta etxeko kontuetan nahikoa dirurik ez dagoenean, kanpora jo behar da laguntza eske eta kanpoko laguntzak zer? Egungo egoera ikusi besterik ez dago, mozketak besterik ez datoz bai Foru Aldunditik baita Eusko Jaurlaritzatik ere.

Beraz, egoerari aurre egiteko hasieran adierazitako lana eta ilusioa biderkatu beharko ditugu dauzkagun asmoak aurrera eraman ahal izateko.

MOTZEAN

Nueva gestión del servicio de aguas por parte del ayuntamiento

En este número previo al comienzo de las vacaciones estivales, los responsables del Ayuntamiento de Bergara dan a conocer cómo será la nueva gestión del servicio de aguas por parte del ayuntamiento. Para ello, acercan a los ciudadanos toda la información necesaria para entender el por qué de esta

decisión. Además, se ofrece una amplia información sobre las excavaciones arqueológicas que se llevarán a cabo en la iglesia del Real Seminario, donde es muy probable que se encuentren testimonios sobre la historia de Bergara.

El suplemento central de la revista municipal nos ofrece

toda la información sobre el sitio web 'Bergara en cifras' estrenado hace muy poco y que pretende ser una herramienta de trabajo para todos aquellos que lo deseen. El Ayuntamiento a puesto a disposición de la ciudadanía toda la información sobre la realidad social y económica de Bergara.



UR ZERBITZUA UDALAREN ESKU



Urritik aurrera Bergarako Udalak kudeatuko du herria hornitzen duen ur zerbitzua. Erabakiaren ondorioz, orain arte Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egin duen lana udalaren esku geratuko da. Udal Gobernuaren iritziz, zerbitzua hobetuko dela antzemango dute bergararrek, azken urteotako hutsuneak beteko baitira. Diruari begiratzuz gero, ez ei da garestiago izango.

Ur zerbitzua, bere izenak esaten duen moduan, ura kudeatzen duen zerbitzua da eta bi arlo nagusi ditu: goiko sarea eta herriko sarea. Goiko sanean, kudeaketa handia eskatzen duten lanak daude, hau da, ura herriko sareraino ekartzeko lanak. Bergararen kasuan, goiko sarea litzateke ura Urkuluko urtegian jasotzen denetik herriko kaleetako lur azpian dauden hodiak iristen den arte. Herriko sareak, berriz, hodiak etxetako iturrietara iritsi arteko bidea kudeatzen du.

2000ra arte uraren kudeaketa Bergarako Udalaren gain zegoen, eta ur-zerbitzuko brigadaren bidez antolatzen zen. Urte horretan, udalak hitzarmen bat sinatu zuen Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin, eta zerbitzuaren ardura bigarrenak hartu zuen. Gauzak horrela, ur-zerbitzuan ari ziren hiru langileak Ur Kontsortzioarentzat hasi ziren lanean. 2004an, azken hitzarmena sinatu zenean Ur Kontsortzioko lehendakaria eta Bergarako alkatea pertsona bera ziren.

Egungo udal gobernuak, ordea, ez dago azken hitzarmenaren ostean eskaini den zerbitzuarekin gustura. Agurte Barruso, Bergarako alkatearen iritziz, hitzarmen hartan sinatu ziren zenbait puntu ez dira gerora

Udal Gobernuak uste du administrazioaren betebeharrak dela bere kompetentziazkoak diren zerbitzuak zuzenean kudeatzea

bete. "Gauean eta jai-egunetan zerbitzua eskainiko zutela esan zuten eta ez dute eman. Euri urak jasoko zituztela esan zuten eta ez dituzte jaso, eta lotuneez ere ez dira arduratu". Bestalde, inbertsio handiak egin behar izan dira ur-ihesak murrizteko eta horien guztien ardura udalak hartu du.

ALDAKETAREN ARRAZOIAK

Ur zerbitzuen transferentzia eragin duten hainbat arrazoi daude. Alde batetik, udal gobernuak ez ditu zerbitzuak azpikontratatu nahi. "Uste dugu administrazioaren betebeharrak dela bere eskuduntzakoak diren zerbitzuak zuzenean berak kudeatzea", adierazi du Agurte Barrusok. Bestetik, udalak uste du zerbitzua hobetuko dela, Ur Kontsortzioak ez baitu hitzarmenean jasotakoa bete. Gainera, ez da garestiagoa izango uda-



Urkuluko urtegia.

Zerbitzua hobetuko da, gauetan eta jai-egunetan larrialdietarako ur zerbitzua bermatuta egongo baita

lak zuzenean zerbitzua kudeatzea.

Uraren kudeaketak udaleko hainbat saili eragingo dio, eta funtsean hiru arlotan antolatuko da; ingurumena, teknikoak eta administratiboak.



Ingurumen batzordearen mende geratuko da, ingurumenaren ikus-pegitik garatu beharreko politikak eta hartu beharreko neurriak hartzeko. Bestetik, egunerokoa obra eta zerbitzuen menpe egongo da, eta lau personako lan taldea osatuko dute. Administrazioari dagokionez, kontuhartzailetzan kokatuko da.

Urritik aurrera udalak igorriko eta kobratuko ditu fakturak

ERAGINA HERRITARRENGAN

Agurne Barrusoren iritiz, bergararrek nabarituko duten desberdintasun bakarra izango da zerbitzua hobetuko dela, izan ere, hitzarmenean jasota zeuden eta betetzen ez ziren alorrak betetzea da xedea. Gauzak horrela, gauetan eta jai egunetan larrialdietarako ur zerbitzua bermatuta egongo da. Fakturari dagokionez, bergararrek ez dute aldaketarik sumatuko, soilik kobratuko duenaren figura aldatuko baita. Urritik aurrera udalak igorriko eta kobratuko ditu fakturak.



Ur zerbitzuko langilea jarduera bat burutzen.

IÑIGO URIBESALGO
OFICIAL DEL SERVICIO DE AGUAS



“Con el cambio daremos un mejor servicio”

¿Cuál es el trabajo que realizáis en el Servicio de Aguas?

Sobre todo, nos ocupamos del mantenimiento. Cambiamos los contadores, efectuamos las altas y las bajas, observamos la calidad del agua mediante el análisis del cloro y vigilamos las obras. Eso se lleva a cabo en cinco puntos diferentes de Bergara. Matxategi, Zubiaurre, Osintxu, Angiozar y Elosu. También gestionamos las aguas de Soraluze, Elgeta y Antzuola.

¿Qué trabajo realizáis en los depósitos?

Normalmente hay poco que hacer, ya que el agua viene tratada desde Urkulu, salvo en Elosu, donde cloramos el líquido elemento.

¿Cuáles son los mayores problemas a la hora de realizar vuestro trabajo?

Normalmente los problemas surgen cuando se realizan los cortes en el suministro de agua. Hay que avisar a todos los vecinos de la zona y normalmente se cre-

an problemas en el trato.

¿Con la nueva gestión del agua por parte del ayuntamiento, qué cambios percibiréis?

Yo creo que daremos un mejor servicio. Ahora somos tres trabajadores para el trabajo diario en Bergara, Elgeta, Antzuola y Soraluze. A partir de octubre seremos cuatro y sólo gestionaremos las aguas de Bergara. Además, empezaremos a hacer guardias de 24 horas y administraremos las aguas pluviales.



GALDERAK

Necesitamos en el polideportivo de Altos Hornos un cambiador para los niños.

La petición de un cambiador en el Polideportivo de Labe-garaieta es un tema interesante y que responde a las necesidades de las personas que tienen niños pequeños a su cargo. Nos parece lógica esta petición y la atenderemos lo más rápido que nos sea posible. Ahora tendremos que analizar la ubicación adecuada de los cambiadores y una vez hecho esto, procederemos a la colocación de los cambiadores para niños pequeños.

Martin Etxeberria /
Concejal responsable de deportes

No me parece nada bien el cierre de las piscinas en las fiestas de Bergara.

Desde el Servicio Municipal de Deportes del Ayuntamiento hemos querido abrir el mayor número de días posibles durante el año las piscinas municipales. Así, durante el fin de semana somos una de las pocas piscinas que abre sus puertas los domingos por la tarde. Ello supone un alto coste en cuanto al servicio y contratación de personal. Pero este esfuerzo tiene un límite y durante algunos días al año la piscina permanece cerrada como otros servicios municipales. Además, por el carácter especial de las fiestas patronales, que no lo olvidemos, son también para los trabajadores de las piscinas municipales, creemos que se debe respetar el derecho de los trabajadores a disfrutar como el resto de los bergararras de sus fiestas.

Martin Etxeberria /
Concejal responsable de deportes



¿Por qué el Ayuntamiento no gestiona y pide que algunos autobuses pasen y paren en el hospital de Arrasate?

El Ayuntamiento de Bergara estando totalmente de acuerdo con esta petición y asumiendo esta falta de comunicación adecuada del transporte público con el Hospital Comarcal de Arrasate, hemos transmitido esta petición a la Diputación Foral de Gipuzkoa reiteradamente en las reuniones que hemos mantenido con ella para analizar las insuficiencias del mismo. En vista de que no se han atendido las peticiones realizadas oralmente, hace unas semanas realizamos la reclamación por escrito. Hoy es el día en que

no hemos obtenido respuesta.

De todas formas y conscientes de la importancia que tiene para Bergara el hecho de que el transporte público interurbano que circula por la comarca nos ofrezca un servicio adecuado de cara al Hospital Comarcal, desde el Ayuntamiento seguimos y seguiremos reclamando este servicio a la Diputación Foral de Gipuzkoa, como responsable del transporte interurbano.

Agurne Barruso /
Alcaldesa de Bergara



Galderak jasotzeko aldizkaria@bergara.net helbidean edo udaletxe atariko postontzian.

Ez da komeni 200 karaktere baino gehiagoko galderak bidaltzea. Galdera guztientzat lekurik ez bada, hurrengo zenbakirako gordeko dira.



Bergararen eta bergararren alde lanean tinko

Udal Gobernuaren bi urte hauetan argi ilunak ikusten ditugure alderdiak, eta ilunak gehiago argiak baino. Alde batetik, gauzatu diren proiektu gehienak dira aurreko agintaldian kudeatu eta onartu zirenak. Horien barruan daude, besteak beste, Martinez de Irala kalea, Zabalotegi Aretoa eta hiri-antolamendurako plan nagusia.

Bestetik, gure alderdia ez dago ados hartu diren beste zenbait erabakirekin. Zabalotegitik Bolurako kalea ez dute noranzko bakarrekoa egin. Era berean, UNED Arrizuriaga jauziregira pasatzearen kontra gaude, baita ur zerbitzua udalokotzearen aurka ere.

Aurrekontuei dagokienez, bi urtetan %18 igo dira pertsonalgastuak, eta hori onartezina da. Izan ere, Bergarak arazo handiak dituen aurrekontuak betetzeko. Argi ikusten ez dugun beste gai bat da zer gertatzen den Mizpirualde egoitzarekin. Izan ere, aurreko agintaldian proiektu bat onartu zen egoitza handitu eta egokitzeko, eta orain 'stand by' egoeran dago.

Halere, Udal Gobernuak burutu ditu hainbat ekimen positibo. Horren barruan daude futbol zelai berria eta Bergarako kaleetan giroa pizteko ahalegina.

Harremani dagokienez, tentsio momentuak egon dira gobernuaren eta oposizioaren artean, eta errespetu falta nagusitu da maiz. Poliki-poliki, ordea, badabil giroa mantsoz, denak ahalegintzen ari baikara harremanak hobetzen.

Amaitzeko, EAJtik aditzera eman nahi dugu gure alderdia

beti egongo dela Bergararen eta bergararren alde lanean tinko.

Rafa Amazorrain



Gestión Municipal en estos dos años de mandato

Desde principios de la Legislatura hemos tenido serias dificultades y constantes trabas que permanentemente nos han puesto, siendo al mismo tiempo un caso insólito en nuestra comunidad que en nuestro Ayuntamiento, no exista la Junta de Portavoces.

Este Gobierno Municipal formado por ANV-ARALAR, asumió en el ámbito urbanístico los proyectos e iniciativas de sus predecesores y estas son las que se están realizando.

Meses atrás ya informábamos ante los medios sobre el nulo control sobre las obras de urbanismo, tales como Artekale, San Pedro, Convenio, edificio nuevo rehabilitado en Bidegurutzeta, y otras que en la actualidad se realizan, ya que una vez terminadas carecen de una garantía mínima.

En cuanto a temas de educación, seguimos con los mismos problemas de antes, ya que no se ha dado ninguna solución. La falta de liderazgo en esta materia es notoria.

No se sabe para cuando se realizarán los aparcamientos subterráneos en el aparcamiento del Seminario. Aprobaron la permuta por los garajes en los bajos de las viviendas de Ibargarai que las están vendiendo, cuando necesitamos más que nunca crear aparcamientos.

Seguimos sin solucionar el estancamiento de vehículos

entre las calles de Martokua y Zubiaurre, cuando se les ha podido dar una solución sencilla.

Seguimos reivindicando el bilingüismo en los plenos, en las comisiones informativas y en las publicaciones del Ayuntamiento.

La gestión Municipal, en el transcurso de este año, es totalmente nefasta, estando en estos momentos en una situación poco menos que caótica.

Desde comienzos de la Legislatura, se han realizado inversiones tremendas, y éstas pasan factura en esta situación de crisis, que junto con los presupuestos, extremadamente mal calculados, con los gastos de personal, gastos corrientes, ... más la concesión de gratuidad a los feriantes en estas pasadas Fiestas de Pascua de Pentecostés hacen que la gestión Municipal en estos momentos sea caótica.

La Agrupación Socialista del PSE-EE de Bergara



Elkarlanaren bidetik

Dagoeneko bi urte bete dira Bergarako Udalean sartu nintzenetik. Hasi batean, esperientzia barik hasi nintzenez, dena berria zen niretzat; udalaren funtzionamendua, udalaren politikak daukan eragina, kanpo erakundeekin dauden harremanak, alderdi politikoek udalaren barnean daukaten influentzia... Dena berria eta ezezaguna. Nire ilusio bakarra zen herriarentzat lan egitea, arlo guztietan Bergara eta bergararrentzat hobekuntzak lortuz.

Bi urte hauek, ordea, politikaren errealitatea erakutsi didate, gehien bat alderdi poli-

tikoek pertsonengan daukaten influentzia, eta horrek sortzen duen mesfidantza eta elkar ez ulertzea. Hori ez da mesedegarria herriarentzat.

Bi urteko balorazioari buruz, eta oposizioan gauden ikuspuntutik, aitortu behar dut zaila izan dela. Bizi dugun egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala ez da bat ere lagungarria izan, eta gainera, beste arazo batzuk gehitu dira herrian. Hala ere, gobernuaren eta oposizioaren jokabidea nahiko ona izan dela esan dezakegu, beti ere bakoitzaren desberdintasunak kontuan hartuz. Gobernu taldeari dagokionez, herri guztira eta gehien bat gazteengana zabaldu da udala, eta hori nire ikuspuntutik, pausu garrantzitsua izan da.

Bi urte hauetan erabaki garrantzitsuak hartu dira Bergarako eta bergararrentzat. Alde batetik, Plan Orokorra onartu da aldaketa esanguratsu batekin: Zabalotegiko bidea kentzea. Guk onartzen dugu erabaki hori hartu izana, baina erdialde historikoa oinezkoentzat jarzteak sorturiko aparkaleku falta konpontzeko, pausuak eman beharko liriteke elkarlanean.

Bestalde, Seminarioko erosketa eta Arrizuriagarekin trukaketa egin da. Guretzat ona da hori, ondasun garrantzitsu bat berreskuratzea. Orain erroka berria da bertan eskaintza on bat kudeatzea.

Bukatzeko, esan behar dut ona izan dela gobernu taldeak gurekin izan duen jarrera. Beti informatu gaituzte, eta edozein eskaerari erantzuteko prest izan dira. Horrela jarraitzea espero dut hurrengo urteetan, elkarlanean Bergarak daukan baliabideak hobetzeko. Finean, udalaren gauden zinegotziak herria maite dugun pertsonak besteirik ez gara.

Lauri Askargorta Irizar



ELKARTEEN TXOKOA

BUBISHER ELKARTEA

Bubisher elkarte, Saharako herriaren aldeko txoria



Saharako errefuxiatuen kanpamentua.

Zorte ona dakarren txori baten izena da Bubisher. Izan ere, berri onak ekarri omen ditu Saharako errefuxiatu kanpamentuetan agertzen denean. Metafora horri jarraiki, Saharako herriaren beharrei erantzuteko sortu zen Bubisher elkarte.

Bubisherrek 2006an ekin zion bideari, baina Sahararen aldeko mugimendua ez da berria Bergaran, izan ere, Komite Internazionalistak hainbat urtez bul-tzatu du laguntza. Urteek aurre-egun ahalean, proiektu horiekin lankidetzan aritzen ziren zenbait kidek pentsatu zuten Saharako problematika askoz hobeto jorrazteko beharrezkoa zela elkarte bat sortzea. Horien artean zegoen egun ere elkar-teko kide den Bibiano Andueza, "ikusi genuen erregistratu-ta ez bageunden ezinezkoa zela laguntzak eskatzea, eta lagun-

tzarik gabe zaila zela proiektuak aurrera ateratzea". Orduan jaio zen Bubisher.

EKIMEN UGARI

Elkarteak hainbat proiektu garatu ohi ditu urtean zehar, bi data konkretu nagusitzen direlarik, bata Gabonetan eta bestea udan. Neguko kanpaina elikagai bilketan oinarritzen da, errefuxiatuen kanpamentuetara elikagaiak bidaltzeko. Udako kanpainen bidez, Saharako umeak ona ekartzen dituzte. Aurtengo udan ere, bi hilabetez, bost umeek Bergarako, Antzuolako eta Elgetako familiekin pasatuko dute uda. Horretaz gain, ume minusbaliatuei zuzendutako proiektu bat ere badu Bubisherrek, Bergarako Aransgi elkartearekin eta Getxoko talde batekin elkar-lanean. Proiektu horren bidez, minusbaliotasuna duten Saharako haurrei laguntza materia-



Bibiano Andueza, elkarteko kidea.

Neguko kanpaina elikagai bilketan oinarritzen da, errefuxiatuen kanpamentuetara jana bidaltzeko

la eta ekonomikoa bidaltzen zaie, eta ume horien zaintzaileentzako prestakuntza bermatzen da. Bestetik, hitzaldiak eta erakusketak ere antolatu ohi dituzte, Saharako herriaren problematika bergararrei hurbiltzeko asmoz.

PROIEKTUA ERROTUZ

Elkarte gaztea izanik ere, Bubisherrek lortu du herrian finkatzea eta proiektuak aurrera ateratzea. Hori posible izan da, hein handi batean, bergararren laguntzari eta elkartasunari esker.

NUMEROSOS PROYECTOS

Bubisher lleva a cabo diversas iniciativas durante el año, que se concentran, sobre todo, en las campañas de invierno y de verano. La campaña de invierno consiste en organizar una recogida de alimentos para enviarlos a los campos de refugiados, y la de verano se basa en traer a niños y niñas saharauis para que puedan pasar aquí dos meses. A su vez, Bubisher está impulsando un proyecto para enviar ayuda económica y de formación a niños y niñas saharauis que sufren alguna discapacidad.

Udako kanpainen bidez Saharako umeak ona ekartzen dituzte 2 hilabetez, hemengo familiekin uda pasatzeko

"Herriarren parte hartzea oso ona da eta enpatia dago Saharako herriarekin, izan ere, politikoki bi herriok dugu erronka antzekoa", adierazi du Anduezak. Hala ere, Bubisherrek kideek badakite ez dutela sorpeneko helburua lortu, hau da, Sahara aske bat ikustea. Bibiano Anduezak argi dauka, "ez gara soilik elkarte humanitario bat, izatez, Saharako herriaren aldarrikapenarekin bat egiten dugu, baina benetako irtenbidea eman arte, sahararren beharrei erantzun behar zaie".



BERGARAKO BOLATOKIAK

Bolatokiak, aisialdirako toki aski ezagunak

Jaietan eta igandetako meza ostean jokatzeko ohitura zegoen. Bolatoki gehienak desagertu diren arren, bolotan aritzeko ohitura egun arte mantendu da.

Bolo jokoak tradizio handia du Bergaran. Udal Artxiboan dagoen bolatokiaren lehenengo aipamena 1559. urtekoa da. Agirietan agertzen denez, herriko lehenengo bolatokia Mizpildin zegoen. Informazio hori jaso da garaiko alkatearen aurrean izandako lekukoei esker, bi bolarien artean sortutako sestrari buruzko galdetegiaren erantzunetan esandakoogatik, hain zuzen ere.

JOKO HERRIKOIA

Bolotan aritzea oso herrikoia zen, egun pilota edo futbola diren bezala. Horren ondorioz, badi-rudi Bergarako erdigunean zegoenaz gain, auzo gehienetan ere bolatokiak zeudela. Baserrietako bizilagunek jaietan eta igandeko mezan topo egiten zutenean, bolo jaurtiketa batzuk egiteko aprobetxatzen zuten. Beraz, aisialdirako ekipamendu bezala uler daitezke bolatokiak, akaso, egun futbolzelaia edo kiroldegia hartzen ditugun eran. Apustuak egitea ere oso ohikoa zen boloetan aritzean, izan ere, bolatokietan dirua jokatzekoa zen.

UDALAK ERRENTAN

Udalak errentan atera ohi zuen bolatokia. Adibide gisa dago 1839ko abenduaren 31n egindako eskritura. Bertan, udalaren eta Jose Urisarriren arteko kontratua sinatu zen, 1840an indarrean jarritzena. 1892. urtean bolatoki berria egin zuten Bergarako frontoiaren ondoan, gaur egungo Fraiskozuri plazan. Baina badi-rudi bazegoela beste bat Agorrosin baserriaren inguruan.



Agorrosin baserriaren eta futbol zelaiaren ondoan zegoen bolatokia. 30eko hamarkada. Bergarako Udal Artxiboa (Toribio Jauregi fondoa). Egilea: Toribio Jauregi.

Herriko bolatokiaren gainera **lehenengo aipamena 1559. urtekoa da eta Mizpildin zegoen kokatuta**

KANALEKO HIRU TXIRLO MODALITATEA

"Bizkaiko ekialdean jokatzekoa da, Elorriotik Ondarroaraino, eta baita Gipuzkoan ere, kasu horretan Deba ibaiaren harenan. Hiru boloek hogaita bat zentimetro dituzte eta eskua, zilla edo erdikoa eta guena deritze. Irristatzeko pistak hemeretzi metro inguruko luzera izaten du eta boloak euren artean metro bateko distantziara jartzen dira"

Juan Jose Zorrilla adituaren teste batetik jasota



Atzealdean ikusten den eraikina da bolatokia. 1933an. Bergarako Udal Artxiboa (Toribio Jauregi fondoa). Egilea: Toribio Jauregi.



* Gehigarria BERGARA ZENBAKITAN

BERGARA ZENBAKITAN

/ BERGARAKO ERREALITATEAREN GAINEKO INFORMAZIO GUZTIA
IKUSGAI UDALAREN WEBGUNEAN. HERRITARREK, ELKARTEEK ETA
NAHI DUEN OROK APROBETXATU DEZAN /



Bergara eta bergararrei buruzko bestelako ikuspegia batu nahi izan da webgunean. Izan ere, Bergarako Udala konprometituta dago, beste erakunde, enpresa, elkarte eta herritar askorekin batera, bergararren ongizatearekin.

Para el Ayuntamiento de Bergara es un placer poner a disposición de los bergararras este sitio web que trata de presentar a Bergara y sus vecinos desde una nueva perspectiva.

BERGARA EN CIFRAS

/ TODA LA INFORMACIÓN ACTUALIZADA SOBRE LA
REALIDAD SOCIAL Y ECONÓMICA DE BERGARA
AL ALCANCE DE LA CIUDADANÍA /





“Izan ginenetik izan gaitezkeena irudikatzen dihardugunok muga bat eta bakarra daukagu: errealitateak ezartzen diguna; horixe da gu guztion abiapuntua. Gure errealitatea ezagutzeko modu ahalik eta osatuena bildu dugu, Aztikerrekin batera, webgune honetan”

AGURNE BARRUSO • BERGARAKO ALKATEA



LANERAKO TRESNA HERRITARRENTZAT

Begarako Udalari gustatuko litzaioke Bergara Zenbakitan guztiontzat tresna erabilgarri eta emankorra izatea. Udalak gonbidatzen zaituzte, beraz, zenbakien, datuen eta koadroen artean bueltatxo bat ematera, bergarrok nolakoak garen ikusteko; eta paseoan ari zarete, iritziak trukatzera bidean topatzen dituzuenekin.

UNA HERRAMIENTA DE TRABAJO

El Ayuntamiento de Bergara les propone a los ciudadanos/as la herramienta más completa posible para conocer la realidad del pueblo. Conocernos y promover acciones positivas son dos caras de la misma moneda y, por eso, al Ayuntamiento le gustaría que Bergara en Cifras fuera una herramienta práctica y productiva para todos.



METODOLOGIA

Webgunearen helburua da Bergarako informazio estatistikoa biltzea eta, modu erakargarrian, herritar guztien eskura ipintzea. Horrekin batera, udalaren xedea informazio estatistiko hori guztia testuinguruari lotuta aurkeztea ere izan da. Horrenbestez, Bergarako errealitatea ez ezik, datuen bidez, eskualdeko, herrialdeko, Euskal Herriko, Europako eta mundu zabaleko errealitatea ere aurkezten dira argitalpen honetan.

METODOLOGIA

El objetivo de este sitio web es el de recopilar información estadística del municipio de Bergara y ponerla a disposición de toda la población en un formato atractivo. Además, hemos querido presentar esa información estadística en relación con su contexto. Por consiguiente, además de la realidad de Bergara, presentamos también datos de la comarca, la provincia, Euskal Herria, Europa y el Mundo.



WEBGUNEAK AINTZAT HARTZEN DITUEN IRIZPIDEAK

LURRALDE IRIZPIDEA

- Udalerrria: Bergara
- Eskualdea: Debagoiena.
- Herrialdea: Gipuzkoa; Gipuzkoako lurralde historikoari dagozkion 88 udalerriak.
- Euskal Herria
- Europako Batasuna: 2007. urtean Europako Batasuna osatzen zuten 27 herrialdeak
- Europa kontinentea
- Mundua

WEBGUNEAREN ITURRIAK

- Hauek izan dira erabilitako datu-iturri nagusiak:
- Bergarako 2008ko urtarrilaren 1eko udal errolda. Aztikerrek egindako ustiapena.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Estatistika Erkunde (EUSTAT) eta Espainiako estatuko Instituto Nacional de Estadística (INE)
 - Euskal Herriko datu gehienak hiru iturri nagusi hauek eskuratu ditugu: Euskal Herria Datuen Talaiatik 2006 ikerlana (Udalbiltzarentzat Aztikerrek egindako ikerlana), Datu Talaia eta Euskararen Datu Basea.
 - Nafarroa Garaiko informazioa eskuratzeko, Nafarroako Gobernuko Instituto de Estadística de Navarra (IEN) delakoak eta Espainiako Estatuko Instituto Nacional de Estadística (INE) delakoak eskaintako datuak erabili dira.
 - Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako informazioa Frantziako Institut National de la Statistique et des Études Économiques (INSEE) delakoak eskaintako datuen bidez osatu da.





BERRITZE EGUTEGIA

Bergara zenbakitan webguneko erabiltzaileak datu berriak, freskoak kontsultatu ahal izango ditu. Eguneratze egutegia oso zorrotza baita, eta iturriek konpromisoa hartu dute aldioro datuak eguneratzeko. Webgunean berritze egutegiak zehaztasunez jaso ahal izango dituzte erabiltzaileek.

CALENDARIO DE ACTUALIZACIONES

Los usuarios del sitio web Bergara en Cifras, podrán consultar datos actualizados, ya que el calendario de actualizaciones es muy estricto. Las fuentes se han comprometido a actualizar periódicamente dicho sitio web. Todo la información sobre el calendario de actualizaciones está al alcance de todos en el sitio web.



WEBGUNEAK JORRATZEN DITUEN ATALAK

Bergara Zenbakitan webguneak askotariko atalak jorratzen ditu, ondo antolaturiko zerrendan. Edonork modu errazean kontsultatzeko aukera eskaintzen du.

Bederatzi arlo bereizten ditu Bergara Zenbakitan webguneak:

- Biztanleak lurraldean
- Jaiotzak eta heriotzak
- Adin eta sexu osaketa
- Etxeak eta familiak
- Lan merkatua
- Sektore ekonomikoa
- Etxebizitza
- Euskara
- Hezkuntza

Arlo bakoitzak bere baitan jorratzen ditu beste atal konketuagoak.

FROGATU ETA AURKITU NAHI DUZUN INFORMAZIOA





EUSKARA

HIZKUNTZA ESKUBIDEA

Herritarron hizkuntza eskubideak bermatzeko programa abian



Bergarako herritarrak euskaraz normaltasunez bizitzeko ahaleginen barruan, udalak beste egitasmo bat jarri du martxan. Ekimen horren helburu nagusia da bergararren hizkuntza eskubideak bermatzea. Horregatik, hizkuntza eskubide horiek betuzenez direnean, salaketa jasotzeko eta konponbideak bilatzeko mekanismo eraginkor bat abiarazi dute.

Ekimena, UEMAekin (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioarekin batera bideratuko da. Behatokia, Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideez arduratzen da, eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jardueran.

HERRITARREK EUREN ESKUBIDEEN ALDE EKITEKO AUKERA

Horren guztiaren ondorioz, beraz, Bergaran ere edozein herritarrek

aukera izango du euskaraz jarduteko eragozpenak salatu eta Behatokiaren bitartez kexa bideratzeko.

Kexak jasotzeko kuxak eta inprimakiak udalerriko honako tokietan egongo dira urritik aurrera: Kultura

Etxean, Agorrosinen, udaletxean, Angiozarren, Osintxun eta Labegaraierako kiroldegian. Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu, ekimean parte har dezaten.

Kexak jaso eta bideratzeko prozedura:

1. Herritarrak, (edo udal langileak edo udal hautetsiak) buzoi batean sartuko du kexa, bertan egongo den "Kexa bideratzeko fitxa" erabiliz. Erantzuna lehenbailehen behar badu, premiazko prozedura erabiliko da; hau da, Behatokiaren telefono zenbakira deitu beharko da
2. UEMAk espedientea irekiko dio kexari.
3. Behatokiari jakinarazi eta gestioak egingo dituzte erakunde edo enpresetako buruekin (ez urraketa egin duen langilearekin)
4. Gestioen informazioa batutakoan kexa jarri duenari erantzuna eman go zaio
5. Udalak ere kexaren berri izango du
6. Behatokiak urtez urteko txostenak egingo ditu eta udalarekin zehaztutako komunikazio-ekintzak bideratuko ditu.



KIROL ESKAINTZA

Ikasturte berrian kirol eskaintza oparoa



Datorren urritik aurrera, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak jarduera ugari eskainiko ditu. Horietatik asko aurtengo ikasturtean eskaini diren zerbitzuak dira, beste hainbat, berriz, egitasmo berriak. Bi esparrutan banatuko da kirol eskaintza: ur jarduerak eta lehorreko jarduerak.

UR JARDUERAK

Berrikuntza nagusia izango da Bergarako Igeriketa Plana. Plan hori 0-18 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei zuzenduta dago, eta asmoa da egiten diren jarduera denak metodologია eta didaktika bakarraren inguruan antolatzea. Horretarako, Bergarako Igeriketa Taldea, Gipuzkoako Federazioa eta udala elkarrekin lanean dabilta, Gipuzkoan egin den lehen egitasmo bateratua osatuz. Adinaren arabera, lau etapa bereizten ditu Igeriketa Planak:

- 0-2 urte: ur ingurura moldatzeko ekintzak.

- 2-8 urte: udal igeriketa eskola. Trebetasunaren arabera sei mailatan antolatua. (zapaburuak, dortokak, amuarrainak, baleak, izurdeak eta marrazoak).

- 8-12 urte: kirol hastapena. Berrikuntza nagusia uretako ur jardueren

aniztasuna izango da. Ohiko igeriketaz gain, monoaleta, waterpolo, sinkronizatua eta bestelako espezialitateak garatuko dituzte.

- 12-18 urte: kirol ibilbideen hautaketa. Errendimenduaren eta partaidetzaren arteko aukeraketa egin beharko dute gazteek.

LEHORREKO JARDUERAK

Betiko eskaintzaz gain, mantentze-gimnasia, spinning, yoga, aerodance, tai-chi, tonifikazioa eta gimnasia harmonikoa eskainiko ditu kirol zerbitzuak. Haatik, emakumeentzat eta hirurgarren adinekoentzat jarduera espezifikoa emango dira.

Emakumeentzat hiru jarduera nagusi eskainiko dituzte: Batuka gaztea (8-12 eta 12-16 urte bitarteko neskeentzat), atletismo taldea eta funky.

Hirugarren adinekoentzat, orain arteko lehorreko gimnasiaz batera, uretako gimnasia, yoga eta luzaketa saioak eskainiko dituzte.

Jardueretako ordutegiak, lekuak eta begiraleak abuztuaren 24an zehaztuko dira. Egun horietatik aurrera eta irailaren bederatzira arte ikastaroetan parte hartzeko izena emateko epea irekita egongo da.

LABURRAK

Ikasturte honetako balorazio inkestak

Aurtengo ikasturtea amaitu ostean, kirol erabiltzaileei galdetegi bat pasatu die Bergarako Udalak, kirol zerbitzuen inguruan duten iritzia jakin ahal izateko. Jasotako emaitzak oso onak izan dira. Eskola kiroleko nota 8.9koa izan da. Agorrosingo esparruen azterketari dagokionez, igerilekuak 7.3, fitness aretoak 6.5 eta bai-nuetxeak 5.96ko balorazioa izan dute. Ikastaroek ere balorazio positiboa izan dute, batez bestekoa 7.5 izan delarik. Puntuazio altuena jaso duten jarduerak fibromalgia eta yoga izan dira. Baxuena, berriz, acueroberik izan da.

Balorazioen inguruko datuak eta xehetasunak sakonago aztertu nahi dituenak, eskuragarri ditu udaleko web gunean eta Bergarako kirol sailean.

Futbol aldagela berriak

Martxan daude Bergarako futbol aldagela berrietako lanak. Obrak ekainean hasi ziren eta irailan amaitzea aurreikusten da. Aldagelen eraikin berria Agorrosin estadioaren eta Ipintza futbol zelaiaren artean kokatuko da. Bertan, sei aldagela kolektibo, arbitroen aldagelak, bulegoak eta komunak egingo dira. Aldagela berriek 340 m²-ko azalera izango dute, eta bi solairutan antolatuko dira.

KIROLA



KULTURA

ELKARRIZKETA

ENARA MINGUEZ • BERGARAKO UDALEKO KULTURA ZINEGOTZIA



“Bergararron parte hartzerik gabe ezinezkoa litzateke horrelako jaiak izatea. Beraz, zorionak guztioi”

Zer iruditu zaizkizu aurtengo jaiak?
Oso bereziak. Jai batzordetik antolatu nahi izan den egitarau betea aipatu behar da eta eguraldia ere lagun izan dugu. Udalarentzat oso garrantzitsua da herritarren parte hartzea. Bergararron parte hartzerik gabe ezinezkoa litzateke horrelako jaiak izatea, beraz, zorionak guztioi.

Zein erantzun izan dute ekitaldiek?
Oro har herritarrak oso gustura ibili dira. Zapatu goizean jendez lepo bete ziren kaleak, bai San Martin plazan egin ziren plastika eta bakailao lehia- ketetan zein erraldoien konpartsek egin zuten kalejiran. Era berean, txosna batzordeko kideak oso pozik daude Pentekoste festak nola joan diren ikusita. Era berean, txosna guneko instalazioetan egin

“Jai batzordetik antolatutako egitarau betea aipatu behar da”

den berrikuntzak goxotasuna eman die kontzertuei.

Nolako harrera izan dute aurtengo berrikuntzek?

Harrera ona izan dute ekitaldi gehienek. Bi aipatzekotan, txakurren erakustaldia eta zaldien ikuskizuna aukeratzan ditut.

Zer dago hobetzeko?

Herri bazkariaren arrakasta dela eta, inoiz baino arinago saldu ziren txartelak, eta jendea tokirik gabe gelditu zen. Udalak badu erronka datorren urterako.

UDAKO EKINTZAK

Askotariko ekitaldiak abuztuan

Urtero bezala, aurtengo udarako hainbat kultura ekintza antolatu ditu udalak. Uztailean, Espoloiko musika zikloa izan da egitasmo nagusia. Gainera, kanpoko igerilekuen dinamizazioa abiarazi da. Bergarako hainbat auzotako jaiak ere ospatzen ari dira uztailean. Auzotarrek lan ugari egiten dute jaiak antolatzen, eta horregatik, bergarar guztiak animatu nahi ditu udalak auzoetako jaietara hurbildu daitezen.

Abuztuan ere inoiz baino ekitaldi gehiago egongo da aurtun. Kisiak eraginda jende asko geldituko da herrian. Horregatik, hainbat ekitaldi antolatzeari ekin dio kultura zerbitzuak, hala nola, abuztuko hiru asteazken iluntzetan musika edo bestelako ekitaldiak izango dira. Ostegunetan, ohikoak diren aire libreko filmak eskainiko dituzte, eta astearte zein ostegun arratsaldetan dinamizazio saioak antolatu dira kanpoko igerilekuetan.

Egitarau zehatza kultura agendan.

LABURRAK

Irabazi-asmorik gabeko elkarteei diru-laguntzak emateko oinarriak

Oraingo urtean herriko elkarteek garatuko dituzten egitasmoak diruz laguntzeko baldintzen zerrenda argitaratu du Bergarako Udalak. Eskaera egin ahal izateko, herrian kultura jarduerak eskaini, kanpoko egindako ekintzetan Bergarako herriaren ize-na ezagutzera eman eta herritarren eta gainerako kultura elkarten arteko lankidetzara bultzatu beharko dute. Udalak 54.000 euro bideratuko ditu elkarteei laguntzak emateko. Eskaerak aurkeztu ahal izango dira astelehene-tik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara, udaletxeko Erregistro Orokorrean, oinarri hauek Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean. Eskaera egiteko beharrezkoa da eskaera orria betetzea eta eskatzen den dokumentazio guztia ematea, bertan agertzen diren pausak eta oinarriak errespetatuz.

Datorren abenduan egingo den III. Artisau Azoka arautzeko baldintzak

Gabonetan herria girotzen duen artisauen azokan parte hartzeko deialdia ireki du Bergarako Udalak. Abenduaren 18tik 20ra bitartean egingo da azoka Munibe plazan, eta azokan izango diren artisauen saltokiak esleitzeko irizpideak finkatu dira jada. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Zuberoa, Lapurdi edo Nafarroa Behererako artisauak parte hartu ahal izango dute azokan, baina derrigorrezkoa izango da lurralde historiko horietako esku-langintza tradizional eta herrikoien Errolda Orokorrean inskribatua egotea. Eskaerak aurkezteko epea 2009ko irailaren 4an, 13:30ean amaituko da. Oinarrien informazio guztia eta eskaera orria www.bergara.net web gunean daude ikusgai.



PLAN DE IGUALDAD

Plan de igualdad de oportunidades para hombres y mujeres



Aunque a nivel legislativo la igualdad entre los dos sexos está aceptada, en otros ámbitos como la educación, el trabajo, la sanidad o la sexualidad queda mucho camino por recorrer, para conseguir una plena igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres.

Teniendo en cuenta esta realidad, el Ayuntamiento de Bergara ha decidido llevar a cabo un plan de diagnóstico de igualdad entre hombres y mujeres para poder dar una respuesta a los problemas y necesidades respecto a esta situación. Antes de iniciar cualquier proyecto es necesario conocer la realidad de Bergara y por eso se realizará un completo diagnóstico. Este diagnóstico y el posterior Plan de Igualdad están a punto de ponerse en marcha, con el fin de que puedan estar preparados para fin de año.

RAZONES PARA ELEGIR EL PLAN DE IGUALDAD

La igualdad de oportunidades es la capacidad que tienen los hombres y las mujeres para poder realizar en igualdad de condiciones cualquier acción política, legal y sociológica. En cambio, cada vez se hace más patente que para conseguir los mismos resultados no es suficiente con

garantizar la igualdad de oportunidades. Por eso, el Ayuntamiento de Bergara ve necesario tener en cuenta las diferencias entre mujeres y hombres, para poder impulsar acciones más positivas. El objetivo es claro: que la igualdad legal se convierta también en una igualdad real. Para conseguir este fin, el Ayuntamiento considera necesario que las instituciones tanto públicas como privadas cambien de visión.

PRINCIPIOS FUNDAMENTALES

Tanto en el diagnóstico previo como en el Plan de Igualdad que se desarrollará más tarde, para el Ayuntamiento de Bergara es necesario tener en cuenta algunos principios como la igualdad de trato, el respeto a la diversidad y la heterogeneidad, la integración de la perspectiva de género, la acción positiva y la desaparición de los roles y estereotipos sexuales.

PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Para llevar a cabo este análisis se recogerá y se analizará toda la información cuantitativa y cualitativa sobre las actividades de mujeres y hombres. El Ayuntamiento de Bergara ve necesaria la implicación y participación de la ciudadanía.

LABURRAK

Heziketa okupazionalako Ikastaroa Irailean

Bergarako Udalak, Tornulari-Fresatzaile ikastaroa antolatu du, 18 urtetik gorako langabeei zuzendurikoa.

Irailaren 21etik azaroaren 30era iraungo du eta 275 ordukoa izango da.

Izen ematea INEMen egin behar da, irailaren 1etik 11ra bitartean. Taldea 15 pertsonarekin osatuko da.

Gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzak elkarreentzat

Bergaran garatzen diren jardueren zehatzak finantzatzeko dirulaguntzak arautzeko baldintza plegua ekainaren 9an argitaratu zen, eta hilabeteko epea dago proiektuak aurkezteko. Udal aurrekontuetako 23.494,91 euro izendatu dira dirulaguntza haue-tarako.

Jarduerak, nagusiki talde hauei zuzendu beharko zaie: bazterketa arazoak dituztenei, minusbaliatuei, hirugarren adinekoei, Gizarte zerbitzuen beharra dutenei eta genero berdintasuna bultzatzen dutenei.

Era berean, Gobernu Kanpoko Erakundeei zuzendutako dirulaguntzen araudia irailan argitaratzeko asmoa du udalak.

GIZARTEA

TURISMOA

TURISMO ONDAREA

Bisita gidatuak Seminarioko elizaren indusketak irauten duten bitartean

Uda honetan hasiko dira Erret Mintegiko elizaren indusketa arkeologikoak. Herriaren erdian dagoen eraikin horretan egingo diren lanei esker Bergarako historia ezagutzeko aukera paregabea izango dute herritarrek. Izan ere, Bergarako Udal Gobernuaren asmoa da Erret Mintegiko elizan egingo diren lanak ezagutzera ematea. Horretarako, indusketak irauten duten bitartean, haur eta helduentzat bisita gidatuak antolatuko dituzte, lur azpiko altxor ezkutak guztion begietara zabaltzeko asmoz.

SEI HILABETEKO EPEA

Bergarako Udalak Erret Mintegiko indusketa arkeologikoa egiteko arduraz Zehazten enpresari eman dio. Lanek 108.397,23 euroko aurrekontua dute, eta sei hilabeteko epea dute bukatzeko. Obrak berebiziko garrantzia izango du Bergarako historia hobeto ezagutu ahal izateko. Izan ere, eliza egin aurretik beste eraikin batzuk zeuden zoru horretan.

BISITA GIDATUAK IKASTETXEENTZAT

Udal Gobernuak nahi du Seminarioko elizan egingo diren lanen berri herritarrei ematea, garrantzitsua baita bergararrek historia bertatik bertara ezagutu ahal izatea. Gauzak horrela, lanek irauten duten bitartean, bisita gidatuak izango dira ikastetxeentzat. Era berean, bisitak egiteko aukera izango da egunero, arkeologoen lanak gertutik ikusteko. Esku orriak ere egingo dira, eta dvd bat egiteko asmoa dago. Azkenik, erakusketa bat antolatuko du udalak, indusketetan agertzen diren materialekin.

BI AURKIKUNTZA GARRANTZITSU

Lanak egin aurretik zundaketa arkeologiko bat egin da Seminarioko elizan. Bertan bi aurkikuntza garrantzitsu egin dira: Andres de Madariaga-



Andres de Madariagaren hilobia.



ren hilobia eta metro eta erdiko zabalera duen harrizko horma bat. Indusketa lanei esker zehaztu ahal izango da horma hori harresi batena den ala

ez. Gainera, lur azpian beste altxor batzuk agertu daitezke gure herriaren historia hobeto ezagutzeko.

1597AN HASI ZIREN ERAIKITZEN

Seminarioko eliza 1597an hasi ziren eraikitzen. Jesuitek eta Andres de Madariagak egindako diru ekarpenari esker, 1677an bukatu ahal izan zuten. Halere, 1865ean aldaketak egin ziren eraikuntzan, M.J. Laskurain arkitektoak egin zituen aldaketok, hain zuzen ere.



UDALBATZARRAK

Bergarako Udaleko osoko bilkuretan azken hilabeteotan hartu diren erabaki garrantzitsuenen zerrenda.

2009KO MARTXOAREN 30EKO UDALBATZARRA

- **KANPOSANTURAKO ALTZARIAK** erosteko BZ sistemas enpresak aurkeztutako 3.351,98 euroko aurrekontua onartu zuten, aho batez.
- **HAINBAT ALTXAMENDU TOPOGRAFIKO** egiteagatik Arana Elexpuru S.L. enpresak aurkeztutako fakturak onartu zituzten, aho batez.
- **KOMENIO KALEKO EDUKIONTZIEK** ur-filtrazioekin duten arazoa konpontzeko lanen adjudikazioa onartu zuten PSEren aurkako botoarekin.
- **SEMINARIOKO ELIZAN INDUSKETA ARKEOLOGIKO-AK** egiteko 115.000 euroko gastu-proposamena onartu zuten, aho batez.
- **AUNDIPARTIA LURSAILAREN ITXITURA** egiteko adjudikazioa Osuma basolanak enpresari 10.335,60 euroren truke ematea onartu zuten, aho batez.
- **ZABOR-TASAK** %20,1 igotzeko erabakia hartu zuten, PSEren aurkako botoarekin. Erabakia Gipuzkoako Zabor Kontzortzioak hartutako erabaki batek eragindakoa da.
- **EUSEBIO ETA USOA TABERNETAKO TERRAZETAN OBRAK** egin ahal izateko jabeek egin duten doako zesioa onartu zuten, aho batez.
- **KALEZ KALEKO SALMENTA** arautzen duen udal-ordentzaren hasierako onarpena egin zuten, aho batez.
- **ALDAKETA GARAIA BURUJABETZA GARAIA IZENEKO MOZIOA** aztertu eta onartu zuten Udal Gobernuaren eta EAren aldeko botoekin, PSE eta EAJ abstentitu ziren.
- **UDALBILTZAREN ADIERAZPENAREKIN** bat egiteko EAJ-k aurkeztutako mozioa aztertu zuten eta ez zuten onartu, talde mixtoko 6 zinegotziek eta PSEko biek aurka bozkatu zutelako. EAko bakarrak eta EAJ-ko 5ek alde bozkatu zuten, eta Aralarreko 3 zinegotziak abstentitu egin ziren.

2009KO APIRILAREN 6KO UDALBATZARRA

- **SANTA ANA PARKEAN** egindako lanengatik Asfaltoz Urretxuk aurkeztutako 9.874,05 euroko faktura onartu zuten, aho batez.
- **SAN MIGUEL KALEKO** 7. eta 9. etxebizitzak erosteko akordioa hartu zuten, aho batez. Horrekin batera bertako bizilagunak Eskusarte kalean Eusko Jaurlearitzak eraiki dituen etxebizitzetan birkokatze konpromisoa hartu zen, aho batez.
- **UNED** Fundazioari Erret Seminarioa eta Arrizuria eta etxearen arteko trukea onar dezala proposatzea onartu zuten, EAJren aurkako botoekin.

2009KO APIRILAREN 27KO UDALBATZARRA

- **MATXIATEGI PLAZA** berriro urbanizatzeko lanak egiteko baldintza-plegua onartu zuten, aho batez, 189.809,04 euroko aurrekontuarekin.
- **AURREKONTUAK** Bergarako Udaleko, Mizpirualde egoitzako eta Udal Euskaltegiko 2009ko aurrekontuak onartu zituzten Gobernu taldean dauden alderdien aldeko botoekin, EAJ eta PSEren aurkako botoekin eta EAren abstentzioarekin.

2009KO MAIATZAREN 4KO UDALBATZARRA

- **JOSE LUIS ELKORO** 18/98 makrosumarioaren harira egindako atxiloketak eta bereziki Jose Luis Elkororen atxiloketa salatze mozioa aztertu eta onartu zuten Gobernuaren aldeko botoekin eta EAJ eta EAren abstentzioarekin.

UDALBATZARRAK

KULTURA AGENDA

UZTAILA > IRAILA



UZTAILA

> **UZTAILAK 24,25,26**
Santiago jaiak Basalgo eta
Goimendi auzoetan

ESPOLOIKO OSTIRALETAKO KONTZERTU ZIKLOA / 22:30ean

- Uztailak 24: Marta Sanchez trio

BIBLIPISTINA ZERBITZUA

Uztailaren 6tik irailaren 15era
Agorrosingo kanpoko
igerilekuetan
Astelehenetik ostiralera, 15:00 -
18:00

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

> **MIKEL GARATE ARACAMAREN
MARGO ERAKUSKETA**
uztailaren 24tik abuztuaren 9ra

ABUZTUA

> **ABUZTUAK 5 / 20:00**
Miguel Salvador Project taldearen
jazz kontzertua
/ Espoloian

> **ABUZTUAK 15**
Elexamendi auzoko jaiak

> **ABUZTUAK 16**
San Roke, Bergarako patroia

> **ABUZTUAK 19 / 20:00**
Casual Blues taldearen kontzertua
/ Espoloian

> **ABUZTUAK 24**
• San Bartolome jaiak
Zabaletamendin (Angiozarren)
• Olympicas 2012 kale antzerkia
/ San Martin plazan / 20:00

> **ABUZTUAK 26 / 22:00**
Organiks taldearen soul eta blues
doinuak
/ Espoloian

> **ABUZTUAK 28,29,30**
Kofraixak Osintxu auzoan

> **ABUZTUAK 29**
San Lorentzo auzoko jaiak

> **ABUZTUAK 30**
San Matei jaiak Uberan

AIRE LIBREKO ZINEA SAN MARTIN PLAZAN / 22:00etan

- Abuztuak 6: Crepúsculo
(gaztelerez)
- Abuztuak 13: Slumdog

millionaire (euskaraz)
• Abuztuak 20: Gran Torino
(gaztelerez)
• Abuztuak 27: Sukalde kontuak
(euskaraz)

ERAKUSKETAK Aroztegi aretoa

> **XABIER DIAZ DE CERIO
ESKULTOREAREN ERAKUSKETA**
abuztuaren 28tik irailaren 13ra

BIBLIPISTINA ZERBITZUA

Agorrosingo kanpoko
igerilekuetan.
Abuztu osoan, irailaren 15era arte.
Astelehenetik ostiralera, 15:00-18:00

UDAKO KIROL DINAMIZAZIO ZERBITZUA

8-14 urte bitarteko gaztetxoentzat.
Abuztuko astearte eta ostegun
guztietan. 16:30-18:30.
Igerileku jolas jarduerak, joko
alternatiboak futbol zelaian,
aerobik.eta abar...

DOAKO zerbitzua (eguneko
sarrera edota kirol abonua izatea
ezinbestekoa da).

Ekintzak prestatu ahal izateko
komeni da izena ematea
Agorrosingo sarreran.

IRAILA

> **IRAILAK 3 / 19:00**
Umeentzako ipuin kontaketa
saioa / Usondo parkean

> **IRAILAK 4 / 22:30**
Oihulari Clown taldearen "De
película" helduentzako clown
/ ikuskizuna Zabalotegin.
Euskarazko bertsiorenen
estreinaldia. 5 euro.

> **IRAILAK 5 / 20:00**
Zurrunka antzerki taldearen
"Karakolaren gaua: eskale baten
istorioa" kale-antzerkia
/ San Martin plazan

> **IRAILAK 11 / 18:30**
Antzezkiuna taldearen "Ipuin
lapurra" antzezlan
/ D. Martinez de
Irala kalean. Antolatzailea: Jardun

> **IRAILAK 12**
• Goizean: San Martin feria
• Arratsaldean eta gauean
ekitaldiak (ikus San Martinetako
esku-programa)
• 22:30 Tirri-Tarra taldearen
"Argi-Beltz" emanaldia
/ Udal pilotalekuan,
Begarako Orfeoiaekin eta
Aritzeta abesbatzarekin. 10 euro

> **IRAILAK 16 / 11:30**
Udal Musika Bandaren kalejira eta
12:30ean kontzertua
/ San Martin plazan

> **IRAILAK 18 / 19:30**
Bikote nagusientzako XXV.dantza
askatuko txapelketa, Moises
Azpiazuren oroimenez
/ Bergarako Udal pilotalekuan,
Abarka Dantza Elkartearen
laguntzarekin.

> **IRAILAK 19 / 20:00**
Lena Sinais taldearen kontzertua
/ Espoloian

> **IRAILAK 25 / 22:30**
Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi
antzezleen "Eta Karmele?"
antzezlan
/ Zabalotegi aretoan. Sarrera: 5 euro

> **IRAILAK 15-16**
SAN MARTIN JAIAK

ERAKUSKETAK Aroztegi aretoa

> **KIROL ARGAZKI LEHIAKETAKO
LANEN ERAKUSKETA**
irailaren 18tik 27ra

ORDUTEKIAK:

- ERAKUSKETAK / Aroztegi aretoa / Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30 / Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:30 / Igandetan: 12:00-14:00
- Kultura etxea / Astelehenetik ostiralera: 18:00-21:00 / Larunbatetan: 12:00-14:00

BERGARAKO UDALA
San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net